

AURRERAPEN-TAILERRETAN ATERATAKO ONDORIOAK

Portugalete, 2018-03-12

Bertaratutakoen kopurua: 7

1. BIODIBERTSITATEA ETA BALIO NATURALAK: JARRAITUTASUN EKOLOGIKOA, LANDA-INGURUNEA SUSTATZEA ETA PAISAIA HOBETZEA.

JARRAITUTASUN EKOLOGIKOA

> Esku hartu gabe birgaitzea: "ezer ez egitea" proposatu da, naturak jardun dezan.

KORRIDORE EKOLOGIKOAK

> Irabazi-asmoa duten eukalipto-landaketak mugatzea.

> Lurraldean panpa-belarra desagerraraztea.

HIRI-BARATZEAK

> Portugaleten mozioa onartuta dago, baina garatu zain daude.

IBAIEN IBILGUAK ETA IBAIERTZAK

> Ibaien ibilguak eta ibaiertzak babestea, itsasadarra babesteko.

> Ibaia Ortuellan: ibaitik oso gertu eraikin bat egiten ari direlako kezkatuta.

> Ortuella eta Abanto Zierbena artean lurperatutako ibilgua lehengoratzea.

2. HIRI-EREDU OREKATUA: ETXEBIZITZEN BEHARRA ETA ESKAINTZA, ETA JARDUERA EKONOMIKOAK.

BIZITEGI-KALIFIKAZIOA

> Bilbo inguruko herriak zerbitzurik eta aisiarik gabeko lo-hiri bihurtzen eragozteak.

MOTORRIK GABEKO IRISGARRITASUNA

> Bizikleta egunerokoan erabiltzeko bidegorriak, ez kirol-erabilerarako soilik.

> Gune publikoak eta metro/tren geltokiak lotzeko bidegorri-sarea eta bizikleta-aparkalekuak hobetzea.

> Herrien arteko komunikazioak errazteko bide berriak egitea eta lehengoak berreskuratzea.

HURBILEKO MERKATARITZA

> Sestaoko kasuaren azalpena: gizarte-mugimenduek eragotzi dute Mercadonak saltoki bat jartzea.

> Lehendik dauden merkataritza-gune handiei buruzko kezka. Tokiko merkataritza sustatzea.

EKONOMIAREN SUSTAPENA

> Jarduera ekonomikoa bultzatzea, zentzu zabalean ulertuta, ez soilik industrialia edo pabiloiei lotua.

ETXEBIZITZA

> Etxebizitza sozialak eta sustapen publikokoak alokairu-erregimenean eskusiboki.

3. KUTSATUTA EGON DAITEZKEEN LURZORU ESTRATEGIKOEN BERRONERATZEA.

LURZORU BERRIEN OKUPAZIOA

> Mendiguneetan edo mendi aurreko eremuetan industria-instalaziorik ez jartzea.

PABILOI HUTSAK

> Aurri-egoeran dauden pabiloiek hartzen duten lurzorua berreskuratzea hainbat erabilera bideratzeko: industria, kirola, etxebizitza eta abar.

LURZORUAK BERRONERATZEA

> Zalantzak: Nork garbitu behar du lurzoru kutsatua? Noren ardura da lurzoru landugabeen kasuan? Ba al dago prozesu hori bultzatzeko moduren bat?

4. MOTORRIK GABEKO GARRAIO-MODUAK, GARRAIO PUBLIKOA ETA INTERMODALITATEA.

+ Itsasadarraren bi bazterrak lotzeko oinezkoentzako eta bizikletentzako zubi konbentzionalak falta dira.

MODU BATERAGARRIAK

> 30eko eremu eta kaleak sortzea, oinez eta bizikletaz ibiltzen direnak segurtasun handiagoa izateko.

> Hirien erdialdeak oinezkoentzat jartzea, herritarrentzat atseginagoak izan daitezen.

INTERMODALITATEA

> Goialdeetan dauden auzoetara joaten diren autobusetan bizikleta-eramatekoak jartzea (Zaragozako eredua: bizikleta jartzeko tokia daukaten autobusak).

BIZIKLETA

> Lotura seguruak sortzea bidegorrien artean eta herrien artean:

-Bilbo-Barakaldo Burtzeñatik (Donejakue bidea).

-Bilbo-Getxo.

HEGOALDEKO SAIHESBIDEA

> Hegoaldeko saihesbidearen erabilera sustatzea interesgarria izan daiteke, doan jarritz gero.

> Saihesbidea ez zen egin behar.

5. ONDARE MATERIALA, ONDARE UKIEZINA ETA PAISAIA: IDENTITATEAREN ADIERAZPIDEA, ABERASTASUNA ETA ENPLEGUA.

PAISAIA INDUSTRIALA ETA MEATZARITZAKOA

> Burdinbide berdeak berreskuratzea. Sortuta daude, eta egokitu egin beharko lirateke. Adibidez:

- Orconera-Erretuerto burdinbide berdea.
- Tranbia: Bolueta-Basauri-Zeanuri.
- Lezamako bide zaharra eta tunela Olara arte.

GARAPEN SOZIOEKONOMIKOA

> Meatzaritzako bidea, Andorran hasten dena, desaginda dago hemen. Burdinaren bidea: meatzaritzarekin lotutako aztarnen arteko lotura.

> Donejakue bidea hobetu daiteke.

6. LEHENDIK DAUDEN HIRI-BILBEEN JARRAIAN EZ DAUDEN EKI-PAMENDU BERRIAK ETA ERABILERA MASIBOKO EREMUAK MURRIZTEA.

EKI-PAMENDUEN GERTUTASUNA

- > Auzoetan eki-pamenduak jartzea, auzo guztiak bizirik egotea lortzeko.
- > Udalerrien artean eki-pamenduak partekatu, behar izanez gero.

7. UDALERRIAZ GAINDIKO ESTRATEGIA LURRALDE OSOAN.

> Lurralde-plan partziala lurraldeko desberdintasunak (ekonomikoak, sozialak...) zuzentzeko baliagarria izatea: jarduketan artean lehentasunak ezartzea, lurraldean ekitatea lortzea helburu hartuta.

8. ZEHARKAKO GAIK ERA ESPLIZITUAN INTEGRATZEA: GENEROA, HAURRAK, OSASUNA, IRISGARRITASUNA, EUSKARA ETA KLIMA-ALDAKETA.

GENEROA

> Bizikletan ikasteko ikastaroak emakume helduentzat: segurtasuna, ahalduntzea eta berdintasuna ematen dute.

HAURRAK

- > Edozein neurri hartzeko, lehenik eta behin haurrak kontuan hartu beharko lirateke.
- > Eremu publikoa erabiltzean, lehentasuna izan beharko lukete; gaur egun baztertuta daude.
- > Ikastetxeetara joateko bide seguruak egotea garrantzitsua da, oinez modu *seguruan* iristeko aukera izan dezaten.

EUSKARA

- > Euskarazko izenak berreskuratzea garrantzitsua da eta beste irakurketa batzuk bideratzen ditu, hala nola memoria historikoa.
- > Lurralde-plan batekin lotuta, ez du zentzurik.

1. BIODIBERTSITATEA ETA BALIO NATURALAK: jarraitutasun ekologikoa, landa-ingurunea sustatzea eta paisaia hobetzea.

1_1	Eremu naturalak, landakoak eta hirikoak lotzea , eta zatiketa ekologikoa eta paisajistikoa geldiaraztea.	●
1_2	Korridore ekologikoetan hezeguneak eta baso autoktonoak berreskuratzea .	●●
1_3	Itsasadarren eta ibaiadarren inguruko gunetan lurzoru hutsen balioa handitzea .	●
1_4	Ibaien ibilguen eta ibaiertzen okupazioa eragozte a, ur-goraldiek eta uholdeek eragin ditzaketen kalteak minimizatze aldera.	●
1_5	Hiri-baratzeak : lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta baina garatu gabe dauden nekazaritza-lurzoruetan eremu potentzialak mugatzea .	●●
1_6	Garatu gabeko lurzoru urbanizagarria desklasifikatzeko aukera aztertzea , nekazaritza-eremu estrategikoetan nekazaritzarako balio handiko lurzoruak berreskuratze aldera.	●
1_7	Produktzioarako potentziala duten eremuetan baso-sartzeak egitean, natura-baliabideak oso ahulak ez diren tokietan jartzea.	
1_8	Onura publikoko mendietan, espezie bakarreko baso-sailen orde z espezie autoktonoz osatutako basoak sortzea pixkanaka, azpiegitura berdearen korridore ekologikoei lehentasuna emanez.	●

2. HIRI-EREDU OREKATUA: etxebizitzaren beharra eta eskaintza, eta jarduera ekonomikoak.

2_1	Udalerri bakoitzean enplegu-eskaintza eta langile kopurua orekatzea.	
2_2	Hiri-eredu trinkoa eta erabilera mistoak , erabilera bakarreko eremurik gabe (lo-auzoak, merkataritza-eremu isolatuak...).	●●
2_3	Gaur egun behar diren baino etxebizitza gehiago planifikatutako eremuetan bizitegi-gune gisa kalifikatutako eremuak murriztea edo ezabatzea , dentsitate txikikoak, batez ere.	●●●
2_4	Lurzoru kutsatuen kudeaketa eta lurzoruaren kalitatea lurralde-plangintzaren aurretiko faseetan integratzea, hiri-berroneratzea sustatzeko oinarritzko faktore diren aldetik.	●●
2_5	Irisgarritasuna eta konexioak hobetzea garraio kolektiboen bidez, oinez eta bizikletaz , hirigune finkatuak hiriaren erdialdearekin, ekipamenduekin eta azpiegiturekin lotzeko.	●●●●
2_6	Etxebizitza sozialen merkatua bultzatzea erabilera-lagapeneko etxebizitza-kooperatiben bitartez, alokairuko etxebizitza babestuen bidez...	●
2_7	Etxebizitza hutsetan eta alokairuko etxebizitzetan esku hartzea , zehapen-mekanismoak ezarrita.	●
2_8	Jarduera ekonomikoa bultzatzea lotura onak dituzten eremuetan eta/edo eremu estrategikoetan (intermodalitate-guneak edo irisgarritasun handiko guneak, lehentasunez berroneratzeko eremuak edo desklasifika daitezkeen lurzoruak).	●●

2_9	Hiriguneetan etxebizitzekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoei eustea.	
2_10	Hurbileko merkataritza sustatzea , aldirietako merkataritzaren gainetik, eta merkataritza-gune handien azalera mugatzea.	●●●●

3. Kutsatuta egon daitezkeen lurzoru estrategikoen berroneratzea.

3_1	Industria-pabiloi hutsak leheneratzea , eta erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzak diseinatzea, industria-lurzoruen urbanizazioari eusteko.	●●
3_2	Lurzoru berriak industria-jardueretarako ez okupatzea , hutsik dauden lurzoruak berroneratu arte.	●●●
3_3	Berroneratu behar diren lurzoruak identifikatzea ; bereziki, kutsatuta egon daitezkeenak.	●●

4. Motorrik gabeko garraio-moduak, garraio publikoa eta intermodalitatea.

4_1	Garraio publikoko geltoki intermodalen ondoan aldageltokiak aurreikustea, aldirietako aparkaleku eta guzti.	●●
4_2	Bilboko metropoliko hegoaldeko saihebidia (Supersur) erabiltzearen alde egitea, gaur egun A-8 autobidean dabilen trafikoa hein handi batean arintzeko.	●●
4_3	Aparkaleku publiko eta pribatuen eskaintza kudeatzea , autoaren erabilera beste garraiobide iraunkorrako batzuekin bateratzea bultzatzeko.	●
4_4	Txartel bakarra aplikatzea garraiobide eta operadore guztiei, garraio-aldaketak errazteko eta erabiltzaileen fidelizazioa sustatzeko.	
4_5	Trenbidea garatzea, metropoliko zein kanpoko ibilbideetan , eta trenbide-sistemen funtzionamendu integratua sustatzea.	
4_6	Garraio publikoen geltokiek erabiltzaile nahikoa izan dezaten bultzatzea , hiri-eredu trinko eta mistoei esker.	●
4_7	Ibilbide eta eremu berberak dituzten oinezkoak, ziklistak eta sistema motordunak bateragarriak izateko neurriak ezartzea.	●●●
4_8	Partaidetzako diseinua, erabiltzaileen askotariko premiak aintzat hartuta: rolak, aniztasun funtzionala...	
4_9	Garraio metropolitarrerako hainbat sistema konektatzea (bizikleta, autobusa, autoa...) intermodalitate-nodo berrien bitartez.	●●●
4_10	Bizikleta: erabiltzaileen kopurua handitzeko irtenbideak, segurtasuna hobetzea, elkarren ondoko eremuak konektatzea , jarduera ekonomikoak, ekipamenduak eta garraio publikoen geltokiak.	●●●

5. Ondare materiala, ondare ukiezina eta paisaia: identitatearen adierazpidea, aberastasuna eta enplegua.		
5_1	Hiri-paisaiatik landa-paisaiara arteko trantsizio-paisaietako erabilerak eta jarduerak erregulatzea , hirialdeen hedapena eragozte aldera, eta oinezkoak bi eremuen artean ibiltzeko erraztasunak jartzea.	●
5_2	Paisaia industrialen, meatzaritzakoen eta militarren elementu eta gune bereizgarriak berreskuratzea , paisaia interpretatzeko eta memoriaren zabalkundea bideratzeko.	●
5_3	Erabilera publikoaren antolaketa, habitat naturalekin bateragarria izan dadin, habitat horien balioespina helburu hartuta.	●
5_4	Oso agerian daudelako edo ezaugarri formal eta erabileragatik ikusizko inpaktuak eta/edo egiturazkoak eragiten dituzten elementuak paisaian integratzea .	
5_5	Kultura-ondarearen elementu materialei eta ukiezinei (euskara, jaiak, erromeriak, kirolak eta abar) balioa ematea, zaindu beharreko identitatearen eta bizi-kalitatearen adierazpide diren aldetik.	●
5_6	Herritarrek memoria kolektiboaren adierazpidetzat hartzen dituzten gune geografiko identitarioak identifikatzea.	
5_7	Arnasguneen eragin-eremua identifikatzea, eta lurraldearekiko interrelazioa bultzatzen duten komunikazio-sareak nabarmentzea.	●
5_8	Herritarrek kultura eskuratzeko aukerak hobetzea , bai hirialdeetan bai landa-inguruetan.	
5_9	Ondare naturala eta kulturala garapen sozioekonomiko iraunkorraren ereduarekin bateragarria izango den aktibo bihurtzea.	●●
5_10	Lurralde naturalaren eta hiri-ingurunearen harrera-gaitasunarekin bat datorren garapen turistikoa planteatzea.	

6. Lehendik dauden hiri-bilbeen jarraian ez dauden ekipamendu berriak eta erabilera masiboko eremuak murriztea.		
6_1	Ekipamenduak –batez ere, ikastetxeak– ez deslokalizatzea aldirietara eramateko.	●
6_2	Ekipamenduen eta zerbitzuen gertutasuna bultzatzea, eta oinez, bizikletaz edo garraio kolektiboan joateko erraztasunak jartzea.	●
6_3	Indarrean dagoen lurralde-plan partzialeko parke metropolitarraren edo aire zabaleko aisialdi-eremuen mugak berrikustea , baita Arenan proposatutako parkearenak ere.	●
6_4	Parke metropolitarreri harrera-gaitasunaren araberako erabilerak ematea , aisia-erabilera eta natura-balioa bateratuta, eta lurzoruen jabetza kontuan hartuta.	
6_5	Pertsona adinduen behar eta eskaerak aztertzeko gizarte-ikerketak egitea.	
6_6	Hurbileko ekipamenduak aintzat hartzea, auzoko harreman-sarea, bizi-kalitatea eta osasuna sustatzeko gune diren aldetik.	●●

7. Udalerriaz gaindiko estrategia lurralde osoan.

7_1	Udalen jarduketan artean lehiarik ez sortzea , edo ahaleginak ez bikoiztea.	
7_2	Udalerrien planeamenduak koordinatuta idazteko eta garatzeko mekanismoak ezartzea , udalerrien arteko mugak gaindituz, behar izanez gero.	●●
7_3	Bilboko itsasadarraren inguruaren antolamendu global eta orekatua planteatzea.	●

8. Zeharkako gaiak era esplizituan integratzea: generoa, haurrak, osasuna, irisgarritasuna, euskara eta klima-aldaketa.

KLIMA-ALDAKETA		
8_1	Klima-arriskuen eraginpean egon daitezkeen eremuak identifikatzea (bereziki kostaldeak): bero-uhartea, uholde-arriskua, itsas mailaren gorakada, baldintza geoteknikoen aldaketa...	
8_2	Azpiegitura berdea eta naturan oinarritutako irtenbideak lurraldea indartzeko, haren irauteko gaitasuna sendotzeko eta ingurumenaren aldaketetara egokitzeko.	
8_3	Nekazaritza-jarduerak dibertsifikatzea, eta nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpen integratua, ekologikoa, tokikoa eta berotegi-efektuko gas gutxiago isurtzen dituen sustatzea.	
8_4	Hiriko eta aldirietako berdeguneak lotzea eta ibai-ekosistemak integratzea, bero-uharteen ondorioak murrizteko.	
OSASUNA		
8_5	Bizitegietatik gertu berdeguneak eta aisialdirako tokiak aurreikustea planeamenduan.	●●
8_6	Bizitegi-eremuetan eta hirien erdialdean trafikoa lasaitzeko neurriak bultzatzea.	
8_7	Enpleguaren gertutasuna eta aniztasuna sustatzea, gizarte-bazterketa arriskua murriztea eta osasunaren arloko gizarte-desberdintasunak gutxitzea.	
8_8	Oinez eta bizikletaz ibiltzeko sareak hobetzea, eta mugikortasun aktiboa eta jarduera fisikoa bultzatzea.	
GENEROA		
8_9	Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko, bidean behar den denbora murriztea , askotariko erabilerak kokatuz eta distantziak laburtuz.	

8_10	Zenbait gizarte-taldek arriskutsutzat jotzen dituzten guneak identifikatzea (bereziki emakumeekin, pertsona adinduekin eta hurrekin lan eginez).	●●
HAURRAK		
8_11	Ikastetxeetako patioek hirien berroneratze-prozesuetan duten eginkizunari balioa ematea, espazio publikoan integratutako erabilera anitzeko guneak diren aldetik.	●
8_12	Haurren autonomia pertsonala bultzatzea udal-ekintzen bidez.	●
EUSKARA		
8_13	Euskarazko toponimoak edo terminoak erabiltzea.	
8_14	Arnasgune diren udalerriak babestea eta sendotzea , eta lurraldearekin duten lotura sustatzea.	
IRISGARRITASUN UNIBERTSALA		
8_15	Oinarrizko ekipamendu eta baliabideak herritar guztien eskura daudela bermatzea.	
8_16	Lurraldean dauden oztopo motak identifikatzea eta aztertzea.	